



camino
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

**GALIZIA, ASTURIAS, KANTABRIA, EUSKADI ETA NAFARROAREN ARTEAN, ARTE
ESZENIKOEN BIDEZ KULTURA TRUKATZEKO PROIEKTUA**

IPAR ESZENA BIDEA 2024

**Azalpen-dokumentua eta
parte hartzeko oinarriak**

**CRUZAMENTOS
ENCRUCES
CRUCES
BIDEGURUTZEA**

Truke eszeniko, artistiko eta profesionalerako proiektuen sarea

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com





camión
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

ZER DA IPAR ESZENA BIDEA EGITASMOKO BIDEGURUTZEA TRUKE ESZENIKO, ARTISTIKO ETA PROFESIONALERAKO PROIEKTUEN SAREA?

Ipar Eszena Bidea arte eszenikoen bidez kultura trukatzeko proiektu bat da, Galizia, Asturiasko Printzerria, Kantabria, Euskadi eta Nafarroako kultura-ekoizpena konektatzeko asmoa duena, erreferentzia eta hari gidari moduan hartuta Santiago de Compostelarako bideen ibilbideak, bide horiek harremanetan jartzen baitituzte bost lurralde horiek. Hain zuzen, lurralde horien gainean kultura-lurralde komuna sortu nahi dugu, gure sektore eszenikoen arteko kultura-truke eta -harreman arina izango duena, orain arte existitzen ez zen harremana.

Ipar Eszena Bidea Escena Galega (Galizia), **EscenAsturias** (Asturias), **Acepae** (Kantabria), **Eskena** (Euskadi) eta **Esna** (Nafarroa) arte eszenikoen produkzio-etxeen entitate profesionalak sustatutako proiektua da, **Camino Escena Norte Agrupación de Interés Económico** izeneko *supraentitatean* elkartuta. Entitate hori berariaz sortu da proiektu hau garatu, kudeatu eta ekoizteko.

Ipar Eszena Bidea proiektuak bi ardatz handitan egituratzen du programazioa.

Alde batetik, **Konstelazioen Ibilbidea**, proiektuaren bizkarrezurra, antzerkiko, dantzako edo zirku berriko emanaldien ibilbidea da, proposamenaren ardatz nagusia egituratzen duena. Jakina, trukean oinarrituta dago: erkidegoetako bateko produkzioek bira egiten dute proiektuan inplikaturako gainerako erkidegoetako gune desberdinetan.

Beste alde batetik, **Ibilbide Zabaldua** izenekoak ikuskizunen eta emanaldien ibilbide horri lagun egiten dioten jarduera guztiak hartzen ditu barne, testuinguru bat sortuz programaziorako partaidetza-esparruetan, publikoekin harremana izateko, kulturartekotasuna sustatzeko eta sinergia profesionalak bultzatzeko, topaketak, eztabaidak, tailerrak eta **Bidegurutzea** trukerako proiektuen sarea eginda, zeinak 4. edizioa beteko duen.

Horrenbestez, **Ibilbide Zabaldua** programazio zabalduaren barnean dagoen ekimena da **Bidegurutzea**, eta Galizia, Asturiasko Printzerria, Kantabria, Euskadi eta Nafarroaren

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com





camión
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

artean truke eszeniko, artistiko eta profesionalerako proiektuen deialdia ere bai. Bost lurralde horietako sortzaileen eta konpainien lanak konektatzeko asmoa du, sorkuntzaren, ikerketa eszenikoaren, prestakuntzaren, koprodukzioaren eta, oro har, truke profesionalaren arloetan, proiektu honetatik abiatuta sortutako lurralde komun berri honen esparruan.

INFORMAZIO OROKORRA ETA DEIALDIAREN HELBURUAK:

Proiektuen deialdi honen **gako orokorretako** batzuk hauek dira:

1. Truke-proiektu bakoitzeko gehienez dagoen aurrekontu eta laguntza ekonomikoa 9.000 eurokoa da (zergak barne). Hain zuzen, **Bidegurutzea** ekimenak, 2024 honetan, 20.000 euroko aurrekontu osoa du (zergak barne).
2. **Bidegurutzea** deialdia arlo profesionalean jarduten duten konpainia ekoizleen arteko truke-proiektuak erraztera bideratuta dago. Hortaz, ez da sortzaile independenteentzat, kultura-proiektuetarako (jaialdiak, ekitaldiak eta abar) edo erakunde-tipologia horretara egokitzen ez diren beste talde batzuentzat.
3. Hautagaitzetako bakoitza baloratuko duen batzorde misto batek hautatuko ditu proiektuak. Batzorde horretan ordezkaturata egongo da **Ipar Eszena Bidea** egitasmoko koordinazio-taldea, haren koordinatzailearekin, hitza eta botoa duen ordezkari moduan, eta ekoizpen-koordinatzailearekin, hitza duen baina botorik ez duen ordezkari moduan, zeina batzordearen idazkaria izango den. Beste bi batzordekideak ezaugarri hauetako proiektuetan Estatuan ospe aitortua duten profesional aditu eta independenteak izango dira, baina **Ipar Eszena Bidea** egitasmoarekin harremanik ez dutenak.
4. Deialdiaren xehetasunak azaldu eta interesa duten konpainien zalantzak eta galderak argitzeko helburuarekin, informazio-webinar bat egingo da, Zoom bidez, martxoaren 18an, astelehena, 10:00etatik 11:00etara. Lotura honetatik sartu ahal izango da mintegi horretara:

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILERAK:



www.escenanorte.com





camión
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

<https://us02web.zoom.us/j/88908901991?pwd=ejJPYU5acjBnOS9zZzl6QitCZ2xtQT09>

Bileraren IDa: 889 0890 1991

Sartzeko kodea: 737667

Bidegurutzea ekimenean truke-proiektuen ikusmoldea eta garapena arautu behar duten **irizpideei** dagokienez, proiektuak hautatzeko orduan balorazio-batzordeak aintzat hartuko dituen irizpideak, hain zuzen, hauek dira:

1. Interes orokorra eta proiektuaren fundamentazioa, proposamenaren zeharkako helburuaren alorrean: truke profesional eta artistikoa.

2. Zehaztasuna, argitasuna eta laburtasuna aurkezpenean.

3. **Bidegurutzea** proiektua etorkizuneko elkarlan eta sinergietarako bidea emango duen aukera moduan proiektatzea.

4. Proposatutako baldintza orokorretara, deialdiaren garapenera, antolaketa-esparrura eta helburuetara egokitzea proposamena.

Deialdiaren **helburuak** direla-eta, honela laburbil daitezke:

1. Proiektuaren bost lurraldeetako arte eszenikoetako konpainia profesionalen artean lankidetzaren sare bat sortzea.

2. Arte eszeniko profesionalen arloan, tipologia askotarikoko proiektuak garatzea ahalbidetzea, ikuspuntu zabal eta transbertsal batetik.

3. **Ipar Eszena Bidea** egitasmoaren presentzia hedatzea bere programazio ofizialaren datetatik harago, urte bakoitzeko irailean eta urrian.

4. **Ipar Eszena Bidea** egitasmoaren bost lurraldeetako konpainiei erraztea deialdi bat, hartara, hartatik finantzaketa eskuratu ahal izateko modu malguan eta bateragarrian beste deialdi publiko edo pribatu batzuekin.

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com





camión
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

PROIEKTUEN GARAPENA:

Bidegurutzea deialdira aurkeztutako proiektuak **Ipar Eszena Bidea** proiektuko erkidegoetako bateko konpainia batetik abiatuko dira, truke-prozesua proposatuta erkidegoetako beste bateko edo batzuetako konpainia bati edo batzuei.

Proiektua proposatzen duten konpainiek aukeratu ahal izango dute proiektuko lurraldeetako kideak hartzea (adibidez, Galiziako konpainia batek euskal konpainia bat gonbidatzen du Galizian egonaldia egitera) edo guneetako beste batera bidaiatzea, dela gonbidatuta dela trukea proposatuta baina berea ez den lurralde batean (adibidez, Asturiasko konpainia batek truke-proiektua proposa dezake bere erkidegoan edo Nafarroako konpainia bati proposa diezaioke egonaldia erkidego horretan egitea). Aukerak hainbat dira, baldin eta proposamenaren baldintzak, esparru ekonomikoa eta filosofia errespetatzen badira: truke artistikoa eta profesionala, Galizia, Asturiasko Printzerria, Kantabria, Euskadi eta Nafarroako produkzio-konpainien artean.

Aukerakoa izango da proiektu bakoitzaren barnean sartzeari bitartekotza-ekintzak (topaketak publikoarekin, lana erakustea...), testuinguruan jarriko dituztenak gunearekin, komunitatearekin edo publikoekin. Truke-proiektuan bitartekotza-ekintza hauek sartzeari edo ez sartzeari ez du ekarri eta erabakiko batzordeak hautatzea. Konpainiak eurak izango dira erabakiko dutenak proposatutako truke-prozesuaren barnean beharrezkoak diren edo ez.

DEIALDIAREN EGUTEGIA ETA ERAKUNDE HARTZAILEAK:

Bidegurutzea truke eszeniko, artistiko eta profesionalerako proiektuen sarearen garapenerako etapa desberdinen datak hauek dira:

DEIALDIA.

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com





camión
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

Martxoaren 4a, astelehena, eta apirilaren 3a, asteazkena, artean (14:00)_Proiektuak jasotzea, webgunean (www.escenanorte.com) dagokion fitxan web-formularioa beteta.

Apirilaren 4a, osteguna, eta 25a, osteguna, artean_Balorazio-batzordearen lana.

Aurkeztutako proiektuak berrikustea eta batzorde horren bilera.

Apirilaren 29an, astelehena_Erabakia bidaltzea izena emandako proiektuei.

IMPLEMENTAZIOA.

Apirilaren 29a eta azaroaren 30a artean (larunbata)_Hautatutako proiektuak garatu egin beharko dira, deialdia ebazten den unetik azaroaren 30a arte (larunbata), azken egun moduan.

EBALUAZIO-PROZESUA ETA GASTUAK JUSTIFIKATZEA.

Abenduaren 2a, astelehena, eta 23a, astelehena, artean_Antolatzaileek konpainia parte-hartzaileei emango dizkieten proiektuen ebaluazio-fitxak jasotzea. Haiek baloratzeko talde-bilera egingo da, birtuala, hurrengo edizioetarako hobekuntza-proposamenak identifikatze aldera. Gastuak justifikatzea eta egokia den faktura bidaltzea.

Bidegurutzea ekimeneko deialdira aurkeztu ahal izango dira **Ipar Eszena Bidea** proiektuko bost erkidegoetako batean (Galizia, Asturiasko Printzerria, Kantabria, Euskadi eta Nafarroa) helbide soziala duten arte eszenikoetako konpainia guztiak, eta, halaber, beren ohiko lanbide-jarduna lurralde horietan gauzatzen dutenak.

Beraz, deialdia Galiziako, Asturiasko, Kantabriako, Euskadiko eta Nafarroako edozein egitura eszeniko profesionali zabaldua dago, baina lehentasun-hurrenkera bat egongo da proiektuak hautatzean, talde sustatzaileen (Escena Galega, EscenAsturias, Acepae, Eskena eta Esna) bazkide izatearen edo ez izatearen ondorioz, modu honetan:

Bi konpainia bazkideren arteko truke-proiektuak.

Bazkide den konpainia baten eta ez den beste baten arteko truke-proiektuak.

Bazkide ez diren bi konpainiaren arteko truke-proiektuak.

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com





camión
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

2024KO IPAR ESZENA BIDEA EGITASMOKO BIDEGURUTZEA TRUKE ESZENIKO, ARTISTIKO ETA PROFESIONALERAKO PROIEKTUEN SAREAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK.

(ARRETAZ IRAKURRI, PROIEKTUAREN FORMULARIOA BETE AURRETIK)

1. **Bidegurutzea** ekimeneko deialdira aurkeztu ahal izango dira **Ipar Eszena Bidea** proiektuko bost erkidegoetako batean (Galizia, Asturiasko Printzerria, Kantabria, Euskadi eta Nafarroa) helbide soziala duten arte eszenikoetako konpainia guztiak, eta, halaber, beren ohiko lanbide-jarduna lurralde horietan gauzatzen dutenak. Beraz, deialdia Galiziako, Asturiasko, Kantabriako, Euskadiko eta Nafarroako edozein egitura eszeniko profesionali zabaldua dago, baina lehentasun-hurrenkera bat egongo da proiektuak hautatzean, talde sustatzaileen (Escena Galega, EscenAsturias, Acepae, Eskena eta Esna) bazkide izatearen edo ez izatearen ondorioz, modu honetan:

Bi konpainia bazkideren arteko truke-proiektuak.

Bazkide den konpainia baten eta ez den beste baten arteko truke-proiektuak.

Bazkide ez diren bi konpainiaren arteko truke-proiektuak.

Halaber, lehentasuna izango dute **Konstelazioen Ibilbidearen** behin betiko programaziorako hautatu ez diren konpainiek.

2. Hautagaitzetako bakoitza baloratuko duen batzorde misto batek hautatuko ditu proiektuak. Batzorde horretan ordezkaturata egongo da **Ipar Eszena Bidea** egitasmoko koordinazio-taldea, haren koordinatzailearekin, hitza eta botoa duen ordezkari moduan, eta ekoizpen-koordinatzailearekin, hitza duen baina botorik ez duen ordezkari moduan, zeina batzordearen idazkaria izango den. Beste bi batzordekideak ezaugarri hauetako proiektuetan Estatuan ospe aitortua duten profesional aditu eta independenteak izango dira, baina **Ipar Eszena Bidea** egitasmoarekin harremanik ez dutenak.

3. Deialdiaren aurrekontu maximoa osatu arte, 20.000 euro (zergak barne), egoki jotzen dituen proiektu guztiak hautatu ahal izango ditu batzorde horrek. Halaber, kredituaren zati bat gauzatu gabe utzi ahal izango da, deialdiaren zati bat eman gabe utzita, ulertzen bada aurkeztutako proiektu guztiak ez direla kalitate nahikokoak.

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com





camión
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

4. Aurkeztutako proiektuen artean jada martxan dauden ekimenak badaude (ekoizpen eszenikoak, ekitaldiak, programazioak...), haiek **Bidegurutzea** proiektuan aurkezteak deialdi honen ezaugarri eta baldintzetara egokituta egon beharko du argi eta era funtsatuan.

5. **Ipar Eszena Bidea** egitasmoaren antolatzaileek jarraipena egingo diote hautatutako proiektuen inplementazioari eta garapenari. Proiektuen ezaugarrietan, jardueretan, helburuetan edo denbora-esparruan egiten den zeinahi aldaketaren berri eman beharko zaie proiektuaren antolatzaileei.

6. Trukearen ebaluazio/txosten bat egiteko konpromisoa hartu behar dute konpainia parte-hartzaileek, antolatzaileek emandako ereduaren arabera. *Online* egingo den ondorengo lan-bilera batean parte hartzeko konpromisoa hartu behar dute, proiektuen garapena ebaluatzeko xedearekin, hartara, arazoak identifikatzeko eta etorkizuneko deialdietan egin litezkeen hobekuntzak inplementatzeko. Trukea egin duten konpainia guztiek parte hartuko dute bileran, eta haiekin batera **Ipar Eszena Bidea** proiektuaren koordinazio-taldea egongo da.

7. Proiektuari eta bertan parte hartzeari zabalkundea emateko konpromisoa hartu behar dute konpainia parte-hartzaileek, beren webgunearen eta sare sozialaren bidez, eta bai antolatzaileei materiala (bideo laburrak, argazkiak) bidaltzekoa ere, jardueren publizitatea egiteko helburuarekin. Era berean, proiektuak sorrarazten duen zabalkunde-material guztian **Ipar Eszena Bidearen** identitate grafikoa sartzeko konpromisoa hartu behar dute konpainia parte-hartzaileek.

8. Truke-proiektuetako bakoitzerako laguntza ekonomiko maximoa 9.000 eurokoa izango da (zergak barne). Proiektuak garatu, justifikatu eta ebaluatu eta gero ordainduko da dirua, eta, hortaz, ez da egongo antolatzaileek ordaindu beharreko kopurua osorik edo zati batean aurreratzeko aukerarik.

9. Gastuen justifikazioa haien aurrekontu xehatua aurkeztuta egingo da, azalpenen arabera, zerga-oinarriak + BEZa bananduta. Aurkeztutako eta onartutako aurrekontuaren gaineko edozein desbideratze azaldu eta funtsatu egin behar da justifikazioan. Aurrekontu justifikatu horren barnean fakturak eta ordainketa-frogagiriak ausaz egiaztatzeko eskubidea edukiko dute antolatzaileek.

10. **Bidegurutzea** deialdia bateragarria da aurkeztutako proiektuetarako finantzaketa publiko edo pribaturako beste edozein biderekin, barne hartuta tokiko, probintziako,

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILAEK:



www.escenanorte.com





camino
escena
norte

camín
escena
norte

camino
escena
norte

ipar
eszena
bidea

foruko, erkidegoko eta estatuko esparruetan edozein administrazio publikoren dirulaguntzen deialdiak.

11. Hautatutako proiektuak osatzen dituzten pertsona guztiak Gizarte Segurantzaren alta emanda egongo dira truke-proiektuak irauten duen bitartean. Kontratututako langile guztiak, halakorik badago, erkidego bakoitzean indarrean dauden hitzarmen kolektiboek ezartzen dituzten esparruen barnean egongo dira, eta bai sektoreko dinamiken funtzionamendu zuzena babesten duen autonomia-, foru- eta/edo estatu-mailako beste edozein arauk ezartzen dituenen barnean ere.

12. *Ipar Eszena Bidea* egitasmoko antolatzaileek bere egiten dute konpainiei dokumentazio eta informazio osagarriak eskatzeko eskubidea, aurkeztutako proiektuek parte-hartze oinarri hauetan ezarrita dagoena betetzen dutela ziurtatzeko, bai proiektuari berari dagokionean, bai eta konpainiaren beraren jarduerari dagokionean ere.

13. Proiektuak aurkezteari buruzko zalantzak edo galderak kontsultatzeko, konpainiek coordinacion@escenanorte.com helbide elektronikora idatz dezakete (Diego V. Meizoso, *Ipar Eszena Bideko* koordinatzailea). Gehienez ere 48 orduan erantzungo zaie zalantza eta galderei.

14. *Ipar Eszena Bidea* egitasmoko ***Bidegurutzea*** truke eszeniko, artistiko eta profesionalerako proiektuen sarerako hautaketa-prozesuan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea.

15. DBLO: Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluaren arabera, eta 2018ko maiatzaren 25az geroztik indarrean dagoen Datuak Babesteko Europako Araudiari jarraituta, jakinarazi behar dizugu zure kontaktu-datuak konfidentzialtasun handienarekin tratatzen ari garela eta AIE Camino Escena Norte arduradun bakarra duen kontaktu-fitxategi batean sartuta daudela. Nahi izanez gero, une oro gauzatu ahal dituzu datuak eskuratzeko, baliogabetzeko edo aurka egiteko eskubideak, mezu elektronikoa bidalita helbide honetara: info@escenanorte.com.

PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:



www.escenanorte.com





www.escenanorte.com



PROMOVE / PROMUEVE / SUSTATZAILEAK:

